



DONOSTIAKO UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA 2020 - 2024

AURKIBIDEA

• SARRERA.....	2
• NOLA IRITSI GARA HONAINO	3
• ESPARRU ARAUTZAILE ETA PROGRAMATIKOA	4
• EGITURAK	5
• IV. PLANAREN DISEINUA	6
• EGITURA OROKORRA	7
• PROIEKTU-EMAITZEN EGITURA	8
• ESKU HARTZEA ARDATZAK ETA PROIEKTU-EMAITZAK	9
- 1. ARDATZA: GOBERNU ONA	9
1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK	10
2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIOANALA	15
3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA	19
- 2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	24
4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA	25
5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA	29
- 3. ARDATZA: INDARKERIARIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	35
6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA	36
7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA	41
- 4. ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO	47
8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK	48
• KOMUNIKAZIO PLANA	54
• EZARPENA, JARRAIPENA EA EBALUAZIOA	55

SARRERA

Plan honek Donostiako Udalak 2020-2024 aldirako **emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarduteko estrategia eta proposamena** jasotzen ditu. Donostiako Udalak ibilbide sendoa du berdintasun-politikak diseinatzeko eta ezartzeko, bai eta politika horiek garatzen dituzten berdintasunerako planak egiten ere. Denboran, Udalak berdintasunaren arloan onartzen duen laugarren plangintza-tresna da. Aurreko zikloetan berdintasunerako prozedurak, egiturak eta praktikak martxan jarri eta sistematizatu dira. Aurrerapen hauek sendotzeko beharra ahaztu gabe, dokumentu honek datozen 4 urteetan lortu nahi diren emaitza estrategikoetan zentratzen du esku hartzeko proposamena.

IV. Plana diseinatzeko, honako hauek hartu dira kontuan **esparru- eta erreferentzia-dokumentu** gisa:

- Lege- eta programa-esparrua.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2014-2018) ebaluazioan eta Udalak indarkeria matxistari aurre egiteko duen strategiaren ebaluazioan identifikatutako emaitzak eta erronkak, bai eta 2018an Donostian emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko eguneratua ere.
- Donostiako Udalaren Gobernu-Programa eta kudeaketa-planak.

Gobernu Programaren helburu estrategikoak, berdintasunari buruzkoak zuzenean

- 02.5 Helburu estrategikoa. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeenganako arreta hobetzea.
- 04.1 Helburu estrategikoa. Gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzea helburu duten politika publikoak diseinatzea.
- 04.2 Helburu estrategikoa. Genero-ikuspegia txertatzea udal-politika eta -ekintzetan.
- 04.3 Helburu estrategikoa. Indarkeria sexistaren aurkako sentsibilizazioa bultzatzea.
- 09.3 Helburu estrategikoa. Donostia emakumeen kirolaren erreferente bihurtzea.

Donostiako Udalaren 2019-2023 legegintzaldirako Gobernu Programak Berdintasunerako **IV. Plan hau egitea jasotzen du, 04.2 Helburu estrategikoa Genero-ikuspegia txertatzea udal-politika eta -ekintzetan garatzeko ekintza gisa.**

Esparru honekin, hauek dira IV. Planaren **indar-ideiak**:

- Esku hartzeko estrategiak eta ikuspegiak birpentsatzeko eta horiei buruz hausnartzeko denborak eta espazioak sartzeko, eragile desberdinek, beren esperientzia praktikoa eta bizipenetatik abiatuta, hiriaren egungo testuingurura egokitzen diren neurri-lerro batzuk eraiki ditzaten. Horrela bakarrik izango dira eraginkorrak esku-hartzeak.
- *Genero-mainstreamingaren* eta ekintza positiboaren estrategia duala, eragileak eta sailak inplikaturik genero-politikak zeharka txerta daitezkeen, modu horretan, haien izaera espezifikoak gaitzeko.
- Zeharkakotasunaren ikuspegiarekin aurrera egitea, Udalaren berdintasun-politikan beste diskriminazio-iturri batzuk txertatuz (adina, aniztasun funtzionala, sexu- eta genero-aniztasuna, jatorria, arrazakeria, maila sozio-ekonomikoa, hizkuntza, administrazio-egoera, etab.).

NOLA IRITSI GARA HONAINO

Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana Donostiako Udala Berdintasun Politiken esparruan azken urteotan garatzen ari den ibilbidearen barruan kokatzen da.

Donostiako Udalaren I. Berdintasun Plana 1997-2000 aldian egon zen indarrean. EHUko Gizarte Psikologia Sailari eskatutako I. Plan honen inguruko bi azterlanek ondorioztatu zuten ez zeudela berdintasun-politikak garatzeko behar ziren aurretiazko baldintzak, eta, beraz, udal-langileei prestakuntza ematea erabaki zen, II. Planaren erredakzioari ekin aurretik.

2006an **Hiriko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa** egin zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2008-2013 urteetan gauzatu zen.

Aldi honen hasiera Berdintasun Bulegoko aldaketa garrantzitsuekin batera dator. Langile berriak sartu ziren, eta maila politikoan zein teknikoan, berdintasun-politikak sustatzearen aldeko apustua egin zen.

2010ean, **Zeharkako Neurrien Jarraibidea** onartu zen, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, otsailaren 18ko 4/2005 LEGEAn ezarritako oinarritzko neurriak udal osora hedatzen zituena.*

2010eko azaroan zabaldu zen Donostiako Emakumeen Etxea, emakumeek parte hartzeko funtsezko gunea. Emakumeen Etxea Udalaren eta Emakumeen Etxea Elkartearen arteko kogestio eredu batek arautzen du, Tokiko Gobernu Batzarrak erabiltzen uzteko onartu zuen hitzarmenaren bitartez.

2011n, bi diagnostiko eta plan sektorial landu ziren: Batetik, Emakume eta gizonen egoeraren diagnosis eta lan ildoak Donostiako kirol esparruan; eta bestetik, Donostiako Zaintzaileen Diagnostikoa eta Udal Babes Plana.

2012an, **Donostiako emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa** egin zen. Eta 2013an **2008-2013 aldirako Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioari** ekin zitzaion, udal-kudeaketan generoaren zeharkakotasunari dagokionez lortutako aurrerapenak nabarmenduz.

Berdintasunerako III. Planaren ezarpena urtebetez luzatu zen, eta denbora horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana egiteko funtsezko hiru proiektu ere landu ziren: **2014-2018 aldirako Berdintasunerako III. Planaren ebaluazioa, Udalak indarkeria matxistari aurre egiteko duen strategiaren ebaluazioa eta Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa.**



LEGE ESPARRUA

Atal honetan erreferentziako arau- eta programa-esparru nagusia jasotzen da, Berdintasunerako IV. Planean proposatutako plangintzari eusten diona.

EREMUA	ERAKUNDEA	ARAUA/PROGRAMA
UDALERRIA	DONOSTIAKO UDALA	<ul style="list-style-type: none"> • Generoaren araberako eraginari buruzko jarraibideak, aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak. • Donostiako Udaleko Barne Berdintasun Plana 2020-2023. • Genero-ikuspegia beren oinarritzko jarduera-printzipioen artean duten eta indarrean dauden udal-planak: Donostiako Udaleko Gazteria Sailaren Plan Estrategikoa, Donostiako Udalaren Lankidetzako eta Gizarte eraldaketarako Hezkuntzako Plan Zuzendaria (2017-2019). • Dbus-en II. Berdintasun Plana 2014-2017.
EAE	EUSKO JAURLARITZA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legearen bigarren aldaketa egiteko legearen aurreproiektua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzea dakarren araua (2020 urtearen hasieran onartzea aurreikusten da). • EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII.Plana.
	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2015 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako. • Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana.
	UDALAK	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
ESTATUA	ESPAINIAKO GOBERNUA	<ul style="list-style-type: none"> • 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa. • 1/2004 Lege Organikoa, Genero-Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa. • 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, udalerriek <<emakumeak sustatzeko>> politiken esparruan jarduera osagarriak egin ditzaketela ezartzen dituena. • Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu-Ituna, 2017ko abenduan onartua. • 6/2019 Errege Lege Dekretua, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
EUROPA	EUROPAR BATASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2016-2019ko Konpromiso Estrategikoa • Istanbulen Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta indarkeria horien aurkako borrokari buruzkoa (Estaru espainiarrak 2014an berretsi zuen).
	EUROPAKO UDALERRIEN ETA ESKUALDEEN KONTSEILUA	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume eta Gizonen Toki-Bizitzako Berdintasunerako Europako Gutuna (2006).
NAZIOARTEA	ONU	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda (garapen jasangarrirako xedeak) (2015). • Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra (Beijing, 1995) eta Beijinggo adierazpena eta ekintza-plataforma, New Yorken 2015ean berrikusi eta eutsi zena (Pekin+20). • Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena. (CEDAW) (1979, Estatu espainiarrak 1983an berretsi zuen).

EGITURAK

BERDINTASUN UNITATEA

Donostiako Udaleko Berdintasun Unitateak bere gain hartzen du Berdintasunerako IV. Plan honen diseinua, haren ezarpen eta garapenaren bultzada eta haren emaitzak ebaluatzeko erantzukizuna.

LANKIDETZA ETA GIZARTEAREN PARTAIDETZARAKO EGITURAK

- **Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua.**

Talde feministek, emakumeen elkarteek eta Berdintasun Unitateak osatua da, berdintasunerako udal politiken diseinuan esku hartzen du eta berdintasunarekin eta emakume donostiarren errealitatearekin loturiko gaiak aztertzen ditu.

- **Emakumea eta Hiria Foroa.**

Tradizioz gizonen esku egon diren gaietan emakumeen esku hartzea bideratzen duen lan taldea. Hona hemen gai horietako batzuk: hiriaren antolakuntza eta gure hiriko zerbitzuen mantentzea.

- **Emakumeen Etxearen Jarraipenerako Batzordea.**

Berdintasun Unitateak, Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseiluak, Emakumea eta Hiria Foroak eta Emakumeen Etxea Elkarteak osatua da eta gune hori koordinatzen dute bitariko kudeaketa eredu baten bidez.

INSTITUZIOEK BULTZATURIKO EGITURAK



Alkatetzaren Ebazpen bat dela medio, arloen arteko koordinaziorako honako bi egitura sortu ziren:

- **Berdintasunerako Planaren Eredu, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoa.**

Hartara biltzen dira arlo bakoitzeko teknikarien ordezkariak.

- **Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoa.**

Hartara biltzen dira Planarekin zuzenean loturiko arloetako politikari arduradunak eta arlo horietako zuzendaritzak.



INSTITUZIOEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKO EGITURAK

- **Berdinsarea.**

Sare horren egitekoa da tokiko administrazioetatik helburu horri begira kudeaturiko programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.



IV. PLANAREN DISEINUA

IV. Plana 2019ko bigarren erdian eta 2020ko lehen hiruhilekoan definitu da, berdintasunaren arloko udal-politikaren hausnarketa, kontraste eta zehazte prozesu baten bidez. Prozesu horretan teknikariek eta politikariek, erakunde feministek eta berdintasunaren aldeko erakundeek, herritarrek eta berdintasunean adituak diren pertsonek parte hartu dute, eta honela hedatu da.

1

PLANAREN GAKOEN IDENTIFIKAZIOA ETA EGITURAREN PROPOSAMENA

- III. Planaren ebaluaketaren ondorioen eta esparru programatikoaren informazioa bildu.
- Berdintasunerako IV. Plana, Udalaren Kudeaketa Plana eta beste kudeaketa- eta hobekuntza-prozesu batzuk nola lotu aztertu.
- Ikuspegi interseksionala Berdintasunerako IV. Planean sartzeari ahalbidetuko duten aukera errealek aztertu.

Berdintasun Unitatearekin eta Kudeaketa Planaren arduradurekin lan saioak egin dira.

Emaitzak: Plana osatzeko gakoien oinarrizko dokumentua, Planaren egitura berriaren proposamena.

2

PLANAREN PROIEKTU-EMAITZEN DEFINIZIOA

- Lehentasunak zehazteko, Donostiako emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta esku-hartze gakoak kontuan izanik, planaren egitura eta bilatuko diren emaitzak definitu.
- Berdintasun Unitatearekin lan saioak egin dira.

Emaitza: 8 proiektu-emaitzen eta oinarrizko edukien proposamena.



KONTRASTE POLITIKOA ZINEGOTZIAREKIN

3

EDUKIEN PROPOSAMENA

- Proiektu-emaitza bakoitzaren edukiak lantzeko udaleko sailen teknikariek eta Donostiako Emakumeen Etxea Elkartarekin lan saioak egin dira.

Emaitza: 8 proiektu-emaitzen edukiak.



KONTRASTE BARDINTASUN KONTSEILUAREKIN ETA UDAL LANGILEEKIN ETA EKARPENEN BILKETA

4

BULTZADA POLITIKO ETA ESTRATEGIKOA

- Ekarpesak jasotzeko eta dokumentua osatu.
- Berdintasunerako IV. Plana ezartzeko konpromiso politikoak zehaztu (baliabideak, parte-hartzea...).

Emaitza: IV. Planaren dokumentua.



EGITURA OROKORRA



4 ESKU HARTZE ARDATZ

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planeko 4 esku hartze ardatzak

1. GOBERNU ONA

2. EMAKUMEEN
AHALDUNTZEA

3. INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO BIZITZAK

4. EKONOMIAK
ETA GIZARTE
ANTOLAKUNTZA
ERALDATZEA,
ESKUBIDEAK
BERMATZEKO

8 PROIEKTU-EMAITZA (aurreko 4 ardatzetan sailkatuta)

IV. Planaren indarraldian zehar genero arrakalei begira erdietsi nahi diren helburuak/lorpenak dira.

+ TXERTATUTAKO NEURRIEN ZERRENDA

Ardatz bakoitzari begira udaleko eguneroko jardunean txertatutako neurrien zerrenda bana jasoko da.

PROIEKTU-EMAITZEN EGITURA

JUSTIFIKAZIOA

- ESPARRU JURIDIKO - PROGRAMATIKOA
- III. PLANAREN EBALUAZIOA
- EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA
- MARKO TEORIKO FEMINISTA



NEURRI ILDOAK

- NEURRIA
- NOR (arlotan arduraduna)
- KRONOGRAMA
- GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK



LORTU NAHI DIREN EMAITZAK

- EMAITZEN ADIERAZLEAK
- HELMUGA BALIOA



GOBERNU ONA

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

1. PROIEKTU-EMAITZA: AURREKONTU ETA KUDEAKETA PLAN FEMINISTAK

NEURRI ILDOAK:

- Berdintasuna, erabakiak hartzeko aldagai bat.
- Aurrekontuen analisia genero ikuspegitik.
- Berdintasunean oinarritutako giza baliabideen politika.

2. PROIEKTU-EMAITZA: IKUSPEGI INTERSEKZIONALA

NEURRI ILDOAK:

- Intersektionalitatea definitzea.
- Ez-bitarraren laukia.

3. PROIEKTU-EMAITZA: PLANAREN IRAUNKORTASUNA

NEURRI ILDOAK:

- Berdintasunerako egitura.
 - Araudia.
 - Komunikazioa.

4. PROIEKTU-EMAITZA: EMAKUMEEN ETXE HANDI, ANITZ ETA KOORDINATUAGOA

NEURRI ILDOAK:

- Estrategia.
- Eragina.

5. PROIEKTU-EMAITZA: DONOSTIA, FEMINISMOAREN ALDEKO HIRIA

NEURRI ILDOAK:

- Neska eta emakume gazteentzako programak.
- Emakumeak solaskide.
- Ekialdeko barrutiko berdintasunerako plana egin.

6. PROIEKTU-EMAITZA: ERABATEKO PREBENTZIOA

NEURRI ILDOAK:

- Autodefentsa feminista.
- Adineko emakumeak.
- Detekzio goiztiarra.

7. PROIEKTU-EMAITZA: ERREPARAZIO INTEGRALA

NEURRI ILDOAK:

- Erreparazioa definitzea.
- Esku hartze prozesua berrikustea, erreparazioaren ikuspegitik.
- Erreparazio sinbolikoa.

8. PROIEKTU-EMAITZA: KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK

NEURRI ILDOAK:

- Zaintzen plana.
- Talentu ezkutua azaleratu.
- Berdintasunerako planak eta soldata arrakala.


1

GOBERNU ONA

1. AURREKONTU
ETA KUDEAKETA
PLAN FEMINISTAK

2. IKUSPEGI
INTERSEKZIONALA

3. PLANAREN
IRAUNKORTASUNA



Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
 - 3.4 artikulua. Genero ikuspegiaren integrazioa politika eta ekintza guztietan.
 - 14. artikulua. Administrazio autonomiko, foral eta lokalen aurrekontuak.
 - 18. 1 artikulua. Planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk lantzerakoan eta aplikatzerakoan kontuan izatea emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua.
- **2016ko uztailaren 21eko Institutioen arteko Batzordearen erabakia.** 2. atala. Pixkanaka handitzea berdintasun politiketara bideratutako aurrekontuaren portzentajea.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.**
 - I. programa. Konpromiso Politikoa.
 - BG. 2. Berdintasun politikak garatzeko aurrekontuak handitzea.
 - III. programa. Genero ikuspegia lan prozeduretan.
 - BG. 10. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
 - BG. 11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia txertatzea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA

- Identifikatutako indargunea: Donostiako Udaleko berdintasun aurrekontua eta gastu eraldatzailea handitu izana.
- Identifikatutako ahulezia: Plana beste kudeaketa tresna eta sistemetan txertatzeko zailtasuna.

EGUNGO EGOERA

- 2019ko udal aurrekontuetan programen % 35,2 aztertzen dira genero ikuspegia aintzat harturik (udal aurrekontuaren % 57,13). Berdintasunezko 14 partida espezifiko jaso dira, eta % 0,42koa da gastu eraldatzailea. 941.541,92 € hartzen ditu berdintasun programak.

Emakumearen Munduko IV. Konferentziak, Nazio Batuek 1995ean Beijing hirian antolatutak, generoko mainstreaming-a eta ekintza positiboa emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko estrategia egokienak zirela aipatu zuen, eta azpimarratu egin zuen **emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegia aintzat hartzeko premia dagoela erabakiak hartzeko unean eta politika publikoen zeharkako kudeaketan.**

Gakoa udalean **politika eta tresna nagusiak identifikatzea eta aliantzak eraikitzea da**, modu horretan berdintasuna erabakiak hartzeko funtsezko aldagaia izateko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoak, konpromiso horiek bermatuko dituzten neurriak behar ditu eraginkorra izateko, esate baterako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko araudia sortzea, **aurrekontu baliabideak handitzea**, eta politiken plangintza, ebaluazioa eta gardentasunaren kulturaren sustapena garatzeko behar bezala prestatuta eta legitimatuta dauden pertsonak zein egiturak antolatzea.

Hala, esate baterako indarkeria matxistarik gabeko hiriak sortu ahal izateko, baliabideak bideratu behar dira ahalduz, elkarrenganako zaintza eta autonomia lantzeko. Marcela Lagardek azaltzen duen bezala, *“batzuetan autonomia aipatzen dugu, baina ez dugu sostengu ekonomikoa nola eman bilatzen, eta autonomia gizartearen ekintza ekonomikoa da, pertsona bakoitzarena, talde bakoitzarena, autonomoa izateko asmoa duen edozein instantziarena. Gutxieneko baldintza ekonomikoak behar dira autonomia gauzatu ahal izan dadin, dirurik gabe autonomia sustatzeko diskurtso ederra egin daiteke, baina ez dago autonomia bizitako gertaera bihurtzeko benetako aukerarik.”* (MARCELA LAGARDE, 1997: 8).

Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak

Neurriak

BERDINTASUNA, ERABAKIAK HARTZEKO ALDAGAI BAT

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
1.1. Proposamen metodologikoa egin udal arlo, enpresa eta erakundeek dituzten berdintasunerako ekintza estrategikoenak kudeaketa planean nola sartu lantzeko. <ul style="list-style-type: none"> ○ Zeharkakotasun estrategikoa nola txertatu kudeaketa planetan oinarrituta. ○ Udal arlo, enpresa eta erakundeei elkarlanean zabaltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza • Alkatetza • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lan saioak guztira
1.2. Zerbitzu-gutunetan genero-ikuspegia txertatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Zerbitzu-gutun berriak egitean kontuan hartu beharreko genero-gakoak identifikatzeko check-list bat egitea (adib. prozesuan emakume eta gizonen presentzia bermatzea jaso, adierazleak sexuaren arabera banatu, etab.) ○ Zerbitzu-gutunak argitaratu aurretik, berdintasun-sailari bidali genero ikuspegitik berrikusteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaritza • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Aztertutako zerbitzu-gutunak guztira
1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Diseinu metodologikoan Berdintasun unitatearen parte hartzea. ○ Berdintasunezko proiektuen eta emakumeek aurkeztutako proiektuen arrakasta-tasa erlatiboa aztertzea. ○ Proiektu interesgarriak sortzeko tailerrak antolatzea. ○ Bozketan aukeratzeko ez dituzten proiektu interesgarriak Planaren batzorde teknikoan aztertzea, departamentuen kudeaketa planean sartzeko aukera daukaten baloratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontuak • Partaidetza • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lan saioak guztira • Tailerrak guztira
1.4. Udaleko Planetan berdintasun ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Planak egiten dituzten udal arloak • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Berdintasunerako Unitateak parte hartzen duen udal planen kopurua
1.5. Kontratazio publikoan sartutako berdintasun klausulen betetze mailaren jarraipena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Kontratazioa • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Klausulen betetze mailaren %a

Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak

Neurriak

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
1.6. Aurrekontu programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik.	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Aztertutako programa berriak, guztira
1.7. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Kontu-hartzailletza Aurrekontuak Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Partida moreak, guztira
1.8. Kudeaketa-planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Lehendakaritza 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
1.9. Aurrekontuko diru-sarrerak aztertzen hastea.	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Aztertu den diru-sarreraren %a
1.10. Aurrekontu-programak azertzean hautemandako desberdinkeriak gainditzeko neurriak proposatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Aurrekontuak Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Proposatutako neurriak, guztira

Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak

Neurriak

BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO GIZA BALIABIDEEN POLITIKA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
1.11. Berdintasunerako barne plan berria garatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Harrera-eskuliburuan berdintasun atala sortzea. ○ Lan eskaintza publikoak, genero ikuspegitik lantzea. ○ Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa eguneratzea eta komunikatzea. ○ Lan arriskuak, genero ikuspegitik aztertzea. ○ Lanpostuen balorazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Giza Baliabideak • Sindikatuak • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Genero ikuspegitik landutako lan eskaintzak, guztira

Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA
• Gobernu Planean sartu diren berdintasunerako ekintza estrategikoen %a	• %80
• Berdintasunerako ekintza estrategikoak kudeaketa planean sartu dituzten udal arlo, enpresa eta erakundeen %a	• %80
• Genero-ikuspegia txertatu duten zerbitzu-gutunen %a	• %100
• Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasunezko proiektu eta emakumeek aurkeztutako proiektuen arrakasta-tasa erlatiboa	• 1,0
• Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasunezko proiektuen %a	• %10,0
• Aurrekontua duten berdintasun ekintzen gogobetetze mailaren %a	• %90
• Partida moreak dauzkaten udal arlo, enpresa eta erakundeen %a	• %60
• Gastu eraldatzailearen %a	• %1
• Berdintasunerako barne planaren betetze mailaren %a	• %80
• Lan eskaintza publikoetan emakumeen sarrera	• %40- 60
• Udal langileen gogobetetze maila erakundearekin emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, sexuaren arabera bereizita (inkesta)	• 7 (0tik 10era bitarteko eskala)

Ikuspegi interseksionala

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
 - 3. artikulua. Printzipio orokorrak. Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.
 - 16. artikulua. Estatistiken eta azterlanen egokitzapena.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.**
 - Printzipio gidariak: Interseksionalitatea biltzen du printzipio gidarien artean, eta estrategiaren diseinuan aitortu egiten du generoaren interseksionalitatea beste ezberdintasunekiko.
 - III. programa. Genero ikuspegia lan prozeduretan.
 - BG 6.1. Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka txertatzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.
 - BG 6.2. Informazioa ustiatzean eta aztertzean sexu aldagaia erabiltzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.
 - BG 6.3. Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi interseksionala duten berariazko azterlanen kopurua handitzea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (2018)

- Askotariko errealitateak eta aintzat hartuak izateko premiak dira praktikara eramateko zailtasun nagusiak.

EGUNGO EGOERA

- Ez dago sistematizatuta ikuspegi interseksionala, ez eta landu beharreko kategoriak ere.
- Inkestetan, azterlanetan eta datu baseetan ez dago sistematizatuta ez-bitarraren gelaxka.

Generoak gorputz guztiak zeharkatu eta hainbat posiziotan, ezberdintasun posiziotan, kokatzen ditu. Baina generoaz gain, eragiten gaituzten eta eragiten ditugun beste kategorია asko daude, arrazialtasuna, bazterkeria egoera maila, gizarte-ekonomia maila, jatorria, sexu eta genero aniztasuna, adina, aniztasun funtzionala, hizkuntza eta egoera administratiboa, besteak beste. Eta horrek guztiak agerian uzten du emakumeek ez dutela talde homogeen bat osatzen, eta garrantzitsua dela errealitate ezberdinak eta haiek osatzen dituzten faktoreak aintzat hartzea.

"Elkarrekin egonda eta elkar ezagututa ohartu gara emakume kategoría bera oso mugatua dela izen horrek gutako bakoitzarentzat dauzkan esanahi ugariak biltzeko" (ITZIAR GANDARIAS, 2016: 80), eta ikuspegi interseksionalaren aldeko apustua egiteak **begirada oso bat** eskaintzen du, **kategoriak nola erlazionatzen diren eta kategoría horiek egunerokotasunean nola eragiten duten azaltzeko.**

Garrantzitsua da une oro aintzat hartzea ikuspegi hori neurri jakin batzuen bidez praktikara eramatean sortzen diren zailtasunak, izan ere, *"ikuspegi hori ez baztertu eta ez ordezkatzek sortzen duen tentsioak erabilgarritasuna eta erronkak birpentsatzeko eta eztabaidatzen jarraitzeko aukera ematen digu"* (ITZIAR GANDARIAS, 2016: 89). Horregatik, ezinbestekoa da interseksionalitatea lantzen hasteko hausnarketarako guneak zabaltzea, emakumeen askotariko bizipenak aintzat hartuko dituen gogoeta egiteko.

Azkenik, garrantzitsutzat jo da gogoeta horretan dokumentu, estatistika eta azterlanetako datuak genero aniztasuna kontuan harturik nola biltzen eta erabiltzen diren jasotzea. Modu horretan, gelaxka ez-bitarra gehitzeko eta LGBTIQ+ herritarrak irudikatzekeo neurriak finkatu ahal izango dira errealitate horiek ageriko egiteko.

Ikuspegi interseksionala

Neurriak

INTERSEKZIONALITATEA DEFINITzea						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
2.1. Interseksionalitatezko esperientziak identifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Udalan ze proiektuak eta prozesuak ikuspegi interseksiozaneatik egiten diren identifikatzea. ○ Testigantzak jasotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Berdintasunerako Batzorde teknikoa • Lehendakaritza. Zeharkakotasun Taldea 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Identifikatutako proiektuak, guztira • Jasotako testigantzak, guztira
2.2. Interseksionalitateari dagokionez, zein aldagai landuko diren erabakitzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Interseksionalitatea lantzeko lehentasunezko udal politikak identifikatzea. ○ Interseksionalitate lantalde bat osatzea. ○ Gaian adituak direnekin saioak antolatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Berdintasunerako Batzorde teknikoa • Lehendakaritza. Zeharkakotasun Taldea 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lantaldean parte hartu duten sailak, guztira • Lan saioak, guztira • Prestakuntza saioak, guztira
2.3. Martxan dauden zenbait proiektu identifikatzea eta interseksionalitatearen ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Interseksionalitatea lantzeko lantaldea 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Landutako proiektuak, guztira
2.4. Interseksionalitatearen garrantzia eta onurak zabaltzea eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileak trebatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Interseksionalitatea lantzeko lantaldea 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Komunikatzeko ekintzak, guztira
2.5. IV Plana berrikustea, aldagai hauek kontuan izanda. <ul style="list-style-type: none"> ○ Bertan zehazten diren neurriak irisgarriak izan daitezten landu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Egin beharreko aldaketak, guztira

Ikuspegi interseksionala

Neurriak

EZ-BITARRAREN LAUKIA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
2.6. Zein dokumentu, estatistika eta ikerketan sartu den identifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Esperientziak identifikatu eta dokumentu moten arabera sailkatu. ○ Esperientzia horietan datuen ustiapena nola egin den aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Berdintasunerako batzorde teknikoa • Udal Informazioko Unitatea • Lehendakaritzako zerbitzu juridikoa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Identifikatutako praktikak, guztira
2.7. Ez-bitarraren laukia sartzearen ondorioak: onurak, zailtasunak... identifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Gaian adituak direnekin saioak antolatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Udal Informazioko Unitatea • Lehendakaritzako zerbitzu juridikoa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lan saioak, guztira
2.8. Txosten bat egin irizpide teknikoak luzatuz.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Udal Informazioko Unitatea • Lehendakaritzako zerbitzu juridikoa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lan saioak, guztira

Ikuspegi interseksionala

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA
<ul style="list-style-type: none">• Donostiako Udalan interseksionalitatea lantzeko irizpideak izan	<ul style="list-style-type: none">• BAI
<ul style="list-style-type: none">• Donostiako Udalan ez-bitarraren laukia sartzeko irizpideak izan	<ul style="list-style-type: none">• BAI

Planaren iraunkortasuna

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.** 10. eta 11. artikulua. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta Foru eta Toki Administrazioetan.
- **2016ko uztailaren 21eko Instituzioen arteko Batzordearen erabakia.**
 - 1. atala. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaian berariazko araudia lantzea, onartzea eta aplikatzea berdintasun legeetan jasotako genero arloko mandatuak zehazteko errealitateari egokitzeko.
 - 4. atala. Pixkanaka handitzea berdintasunari emandako langile kopurua.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.** I. programa. Konpromiso Politikoa.
 - BG. 1. Berdintasunaren gaian berariazko araudia onartzea eta garatzea. BG 1.1. Berdintasunerako berariazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
 - BG. 4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea. BG. 4.4. Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea BG. 4.5. Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA

- Identifikatutako indargunea: Berdintasun Unitatea, Udal barneko erreferentzia.
- Identifikatutako ahuleziak: Baliabideen eta beharizanen arteko desoreka Plana bere osotasunean garatzeko. Berdintasun arloko teknikari gehiago behar dira Berdintasun Unitatean, Emakumeen Etxean eta udal arlo, enpresa eta erakundeetan. Oraindik onartu gabe dago berdintasunari buruzko ordenantza.

EGUNGO EGOERA

- "Hezkuntza eta Gizarte Sustapena" Zerbitzuko "Berdintasuna, Lankidetzeta, Giza Eskubideak eta Kultura Aniztasuna" Sekzioaren Bulegoa. Unitate hau berdintasuneko 4 teknikarik, Etxeko 2 koordinatzailek (batek egun erdiko lanaldiarekin) eta administratzaile batek osatzen dute.
- Berdintasunari buruzko ordenantza. Egina dago zirriborroa (2018).

Proiektu-emaitza honek Donostiako Udalean azken urteetan **bideratutako berdintasun politiken iraunkortasuna** du helburutzat, Berdintasun Unitatea sendotu nahi du eta baldintzak sortzen ditu araudiaren bitartez berdintasun gaian esku hartzeko. Berdintasun alorrean egindako urratsei eustea eta aurrera egitea da helburua.

Pertsonak, Aurrekontuak, Planak eta programak, eta Parte-hartzea dira berdintasun politiken arrakastaren ardatz. **Pertsonei** dagokienez, garrantzitsua da egitura egokiak sortzea eta luzaroan edukitzea -egitura horiek administrazioko funtzionarioek eta hierarkia maila gorenean ari direnek okupatutako lanpostu espezializatuekin (berdintasunaren alorrean ongi prestatuak), generoko zeharkakotasuna sustatzeko duten balio sinboliko eta estrategikoagatik-, Udala kalitatezko baldintzez hornitzeko eta berdintasun politikak zein haien iraunkortasuna plangintza tresna honetatik haratago bermatu ahal izateko. Pertsona eraginkorrak, arlo teknikoan eta politikoan begiradak zabaldu ditzaketenak.

Egitura hori ezinbestean egongo da Udaleko **Berdintasun Unitate** batez osatuta, propioa eta espezializatua, berdintasunaren erreferentzia eta Udalaren berdintasun politikak garatzeko eta sustatzeko arduraduna izango dena. Eta unitate hori era berean propioak eta espezializatuak izango diren beste erreferentziatzeko egitura batzuekin osatuko da, tamaina, autonomia edo genero-garrantzi handieneko udal-sail eta -erakundeetan, berdintasun-politika espezifikoaren garapena hobetzeko eta modu horretan zeharkakotasuna indartzeko.

Planaren iraunkortasuna

Neurriak

BERDINTASUNERAKO EGITURA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
3.1. Udalaren organigraman Berdintasun Unitatearen kokapena aztertzea, Berdintasun Unitatearen forma egokiena (Unitatea, Zuzendaritza, Zerbitzua...) erabakitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Antolamendu eta Kalitateko Zerbitzua Berdintasuneko zerbitzu burua 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Aztertzeko lan saioak, guztira
3.2. Egituran, Emakumeen Etxea ikusaraztea. Adibide moduan, "Berdintasuna eta Emakumeen Etxea" zerbitzua/zuzendaritza...	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Antolamendu eta Kalitateko Zerbitzua 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
3.3. Berdintasuneko pertsonalaren beharra diagnostikatzea. Berdintasun Unitatea handitzea eta/edo sailetako berdintasunerako erreferenteak sortzea baloratzea. Horren arabera, lanpostu berriak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Antolamendu eta Kalitateko Zerbitzua Berdintasuneko zerbitzu burua Giza baliabideak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Diagnostikoak aurreikusten duen langileen kopurua
3.4. Udal Enpresa eta erakunde autonomoetan berdintasunerako erreferentea sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lehendakaritza Antolamendu eta Kalitateko Zerbitzua Erakunde horietako zuzendariak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda

Planaren iraunkortasuna

Neurriak

ARAUDIA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
3.5. Berdintasunerako Ordenantza onartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Idazkaritza • Berdintasun zinegotzia 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Eginda

KOMUNIKAZIOA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
3.6. Berdintasun Saileko eta Emakumeen Etxeko komunikazio plana gauzatzeko baliabideak bideratzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Emakumeen Etxearen Elkartea • Prentsa bulegoa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Komunikazio kanalak, guztira • Komunikazio tresnak, guztira

Planaren iraunkortasuna

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA
• Berdintasun Unitarearen forma udaleko organigraman	• Bere atala/zerbitzua
• Sortutako berdintasun teknikari lanpostu berriak, guztira	• 2
• Emakumeen Etxeko arduradun teknikoaren lanpostua sortzea	• Bai
• Berdintasunerako erreferenteak sortzen dituzten erakunde autonomoak	• 2
• Ordenantza onartzeagatik, martxan jarritako prozesu berrien kopurua	• 2
• Udal mailan, gutxienez Planaren 3 proiektu-emaitza ezagutzen dituzten langileen %a (inkesta)	• %50

TXERTATUTAKO NEURRIEN ZERRENDA


1. Kontratazioan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan klausula sozialak sartzea
2. “Udal Aurrekontuen analisia, genero ikuspegik” txostena egitea
3. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitea
4. Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, datu bereiztuak... erabilera bermatzea
5. berdintasunerako prestakuntza jasotzea eta antolatzea Udal Formazio Planean
6. “Zeharkakotasunaren lantaldean” parte hartzea. Udaleko zeharkakotasun estrategian lagungarri izatea
7. Planaren batzorde teknikoaren kudeaketa
8. Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politikoa eta Teknikoaren kudeaketa
9. Langileen berdintasun batzordea dinamizatzea
10. Beste instituzioekin sare-lana
11. Berdintasunerako Planaren jarraipena egitea
12. Ikasle eta ikertzaileen elkarrizketei erantzutea berdintasun proiektu eta ikasketetarako
13. Hiritarrak egiten dituzten eskaerak, kexak eta gomendioak erantzun

2

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

4. EMAKUMEEN
ETXE HANDI,
ANITZ ETA
KOORDINATUAGOA

5. DONOSTIA,
FEMINISMOAREN
ALDEKO HIRIA



Emakumeen etxe handi, anitz eta koordinatuagoa

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Gipuzkoako Berdintasunerako II. Foru Plana.** Ildoa: *Sare eta praktika feministak indartzea*. R.5.1. helburua. *Emakumeen etxeak, emakumeentzako jabekuntza eskolak eta emakumeek gizarte eta politikan parte hartzea sustatzeko eta sarean antolatzeke bestelako espazio komunitarioak sortzeko eta indartzeko ekimenak babestea.*

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA

- Identifikatutako indarguneak:
 - Erreferentzia da herritarrentzat eta beste herri zein lurraldeentzat. Hobetzen du zerbitzuen, tailerren eta ahalduentzako beste gune batzuen eskaintza.
 - Udalaren eta herritarren arteko harreman estuagoa ahalbidetu du.
- Erronka nagusia: gune handiagoa lortzea, egoera onean eta ongi kokatuta, baliabide gehiago eskaini ahal izateko.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (2018)

- Erronkak:
 - Ikusgarritasun eta hedapen handiagoa eman behar zaie, etxeari berari zein eskaintzen dituen baliabideei.
 - Elkarrekin guztiekin harremana izan, elkarlanean eta elkartrukean aritzeko.
 - Aniztasunaren aldeko apustua egiteko beharra du, genero aniztasuna lantzeko eta emakume migranteak erakartzeko besteak beste.
 - Dinamikoa, irisgarria, handiagoa, elkargunea izatearren.

EGUNGO EGOERA

- 1.023 emakume bazkide, 140 bisitaldi egunero gune honetan.
- 22 emakume taldek eta talde feministak erabiltzen dute gune hau.
- 2017/18 ekitaldian, 1.326 emakume hurbildu ziren zerbitzura, 427 emakumek parte hartu zuten ahalduentzako taldeetan eta 321 emakumek hainbat tailerretan.

Nazio Batuetako Estatu kideek 2015ean onartutako Munduko 2030 Agenda berriak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) XXI. mendearen bidea aldatu nahi dute txirotasuna, bizitzaren arlo guztietan dauden ezberdintasunak eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazirik. NBE Emakumeak adierazten duen bezala, ez dago alderdi horietan hobetzerik emakumeak ahaldu gabe. **Ahalduentzako baldintza da eta aldi berean bermea munduan gizarte aldatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.** <<Ez dago berdintasunik emakumeak ahaldu gabe>> (Beijingeko adierazpenaren 13. artikulua. Emakumeari buruzko IV. Nazioarteko Konferentzia, 1995).

Emakumeen Etxeetan "*emakumeen elkarteak, berdintasun zerbitzuak eta ahalduentzako eskolak biltzen dira*" (MARI LUZ ESTEBAN, 2014: 70), eta **ahalduentzako esperientzia** aberatsak dira, izan ere, "*talde batek edo batzuk eremu publikoan presentzia izateak norberaren posizioan eta beste taldeen posizioan eragiten du*" (TERESA DEL VALLE, 1997: 167).

Berdintasunean aurrerapenen bat balioestekotan, emakumeen etxeak hartuko nituzke hizpide (...) Emakumeen, mugimendu feministaren eta beste batzuen presentziaren berme dira... Beste nortasun bat sortzen duzu, mugimendu baten zati zara, gutxitu egiten da administrazioaren zurruntasuna. Emakumeen Etxeko "militante" bihurtzen dira emakumeak, Administrazioan sartzen da herria" (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio kualitatiboa).

Donostiako Emakumeen Etxeak 2010eko azaroaren 10ean ireki zituen ateak, hiriko mugimendu feministaren eta emakume taldeen aspaldiko eskaera baitzen. Administrazioak, mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek kudeaketa partekatzen dute Emakumeen Etxea Elkartearen bitartez. Eredu hori posiblea da proiektuak norbera eta taldea ahalduentzako prozesuak sustatzen dituelako. Emakumeen artean jabekuntza sortuz eta gunearen kudeaketak eskatzen dituen erabakiak hartzerakoan parte hartze aktiboa ahalbidetuz elikatzen du bere burua etxeak. Parte-hartzea Emakumeen Etxearen kudeaketa ereduaren bertan txertatzen da.

"Garrantzitsua zen leku propio bat edukitzea, behar zen bakoitzean bilatu eta zehaztu behar ez zen leku bat, nortasun elementu gisa erreferente egonkorra izango zena eta jarduerak ahalbidetuko zituena" (TERESA DEL VALLE, 1997: 176).

Emakumeen etxe handi, anitz eta koordinatuagoa

Neurriak

ESTRATEGIA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
4.1. Kogestio egitura indartzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Bilera finkoak jartzea. ○ Eduki estrategikoak lantzea: espazio berria, koordinazioa... 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Emakumeen Etxearen Elkarte • Donostiako Berdintasunaren aldeko emakumeen kontseilua • Emakumea eta Hiria Foroa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Urtean izandako bilerak
4.2. Espazio berri eta handia lortzea, espazio-denbora-edukietan irisgarria izango dena. <ul style="list-style-type: none"> ○ Obra-proiektua garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zinegotzia 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda
4.3. Udal kudeaketa tresnetan Emakumeen Etxea txertatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Zerbitzu-gutuna egitea. ○ Emakumeen Etxea hiriko ekipamendu mapan/planean sartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Lehendakaritza 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda
4.4. Emakumeen Etxearen datu-basea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Izen-ematea online egiteko aukera ematea. ○ Nondik deribatzen dituzten emakumeak, zergatik, zein behar ezin izan den asetu, nora bideratu diren... jasotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiatik 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda
4.5. Zerbitzu eta baliabideen kudeaketa hobetzea: baliabide gehiago lortzea, datuak jasotzea, memoria, kontratazioak...	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Egindako hobekuntzak, guztira.

Emakumeen etxe handi, anitz eta koordinatuagoa

Neurriak

ERAGINA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
4.6. Emakumeen bizitzan Emakumeen Etxeak duen eraginari buruzko ikerketa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Ikerketa parte hartu duten emakumeak, guztira
4.7. Emakumeen Etxean egiten den lanaren balio ekonomikoa aztertzeko ikerketa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Alkatetza 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Ikerketa parte hartu duten emakumeak, guztira
4.8. Udal langileekin Emakumearen Etxearen erabilera eta deribazioa lantzeko saioak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Etxea ezagutzera etorri direnak, sexu bereiztua, guztira.

Emakumeen etxe handi, anitz eta koordinatuagoa

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA
• Espazio berria eta handia izatea	• BAI
• Emakumeen Etxearen aurrekontuaren igoera	• %10
• Elkartearen bazkide kopurua handitzea	• %25
• Emakumeen Etxea ezagutzen duten Donostialdeko emakumeen %	• %50
• Udaleko langileek Emakumeen Etxeari buruzko gogobetetze maila	• 7
• Emakumeen Etxeko erabiltzaileen gogobetetze maila	• 9

Donostia, feminismoaren aldeko hiria

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
 - 7. artikulua. Tokiko administrazioaren eginkizunak: "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute."
- **2016ko uztailaren 21eko Institutuzio arteko Batzordearen erabakia.**
 - 5. puntua. Hezkuntza sisteman hezkidetzak eta genero indarkeriaren aurreko prebentzioa lantzeko Plan zuzentzailea hedatzen jarraitzea ikastetxeetan pixkanaka hezkidetzak proiektu integralak garatuta.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. I. ARDATZA:**
 - 2. programa: Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoaren aldeko laguntza.
 - 2.1. Gizarte eta herri mugimenduetatik berdintasuna sustatzea.
 - 2.2. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (2018)

- Ikastetxeetan genero estereotipoen arabera daude banatuta guneak, eta horrek agerian uzten ditu dauden ezberdintasunak. Hortaz, aplikatzen diren neurrien arabera, ezberdintasun horiek betikotu edo aldatu egingo dira.

EGUNGO EGOERA

- Berdintasun Unitatearen diru-laguntza deialdia berdintasuna sustatzen duten emakume elkarteei eta elkarte mistoei zuzendua, 2019: 82.000 €-ko partida, 33 elkartek aurkeztutako 35 proiektu lagundu dira diruz.
- Berdintasunerako parte hartze egiturak: Emakumeen Kontseilua, Emakumeak eta Hiria Foroa.
- Gutxi dira neskatila eta neska gazteentzako berariazko ekimenak.

Feminismoa, parte hartzea eta emakume erreferenteak, elkarren artean estu loturik dauden funtsezko hiru kontzeptu eta Donostia feminismoaren aldeko hiri bihurtzeko aintzat hartu beharrekoak. Ikuspegi feminista zeharka txertatu dadin, baliabideak bideratu eta emakumeek prozesuak diseinatzea eta prozesu horien buru izatea ahalbidetu behar da, izan ere, "*euren guneak diseinatu behar dituzte aldaketen eragile izango badira, eta hiri barnean, zuzenean eragiten dizkieten horietan esku hartu behar dute, eta horretarako beren talentua eta esperientzia aplikatu behar dituzte hiriko antolakuntza orokorreko prozesuan eragiteko*" (TERESA DEL VALLE, 1997: 167).

Hala eta guztiz ere, emakumeen parte hartzea murriztuta geratzen da aipatutako erabakitze guneetara iristeko arrakalak daudelako eta oro har emakumeen eskaerak eta, bereziki, mugimendu feministan edo Berdintasun Kontseiluan antolatutako emakumeen eskaerak aintzat hartzen ez direlako. Horregatik, ezinbestekoa da prozesuak eta metodologiak kontuan hartuko dituen **benetako parte hartzea bideratzeko guneak eta bideak irekitzea, emakume guztientzat irisgarriak izan daitezen.**

Parte hartzeko zailtasunetako bat emakume erreferenteen gabezia eta horiek duten ikusgarritasun apala da. Emakumeentzako erreferente berriak sortzeko, hasteko **agenda feminista bat jaso** behar da, eta ikuspegi hori txertatu behar da dauden baliabideetan, izan ere, askeagoak eta berdina goak izango diren gizarte demokratikoak eraikitzeak, ezinbestekoa da emakumeek beren burua eraikitzea eragozten duen araudi femeninoa desaktibatzea (ROSA COBO, 2002). Horretarako ezinbestekoa da hezkidetzak lantzeko baliabideak jartzea; hezkidetzak ikastetxeetako egitura formalak eta erabiltzen diren metodologiak eta diskurtsoak izango ditu xede (Hezkuntza sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana, 2013).

Helburu horiek lortzeko, funtsezkoa da aurrekontuak genero ikuspegia aintzat hartuta diseinatzea eta ematen diren **diru-laguntzek** kontuan edukitzea diru-laguntza horien hartzaille diren proiektuak adostutako balioetan oinarrituta bideratuko direla.

Donostia, feminismoaren aldeko hiria

Neurriak

NESKA ETA EMAKUMEEN GAZTEENTZAKO PROGRAMAK

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
5.1. Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Zientzia eta neskak. ○ Klima aldaketa eta ingurumena. Ekofeminismoa. ○ Orientazio akademiko-profesionala ez sexista. Orientatzaileei prestakuntza eskaini. ○ Jabekuntza guneak. ○ Sexu-heziketa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria • Kristina Enea Fundazioa • Hezkuntza • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Garatutako programak, guztira • Parte hartu duten neskak eta emakume gazteak, guztira
5.2. Hezkidetzarako patioak. Ikastetxeetako patioetan Udalak hobekuntzak eta mantenu lanak egiten dituenean, genero ikuspegia txertatzea (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratza, kirol praktika anitzak egitekoak...).	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza • Hiri mantentze eta Zerbitzuak • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Moldatutako patioak, guztira • Moldatutako patioak erabiltzen dituzten neskak, guztira

Donostia, feminismoaren aldeko hiria

Neurriak

EMAKUMEAK, SOLASKIDE						
NEURRIAK	NOR	BALIABIDEAK				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
5.3. Berdintasunerako diru-laguntzen oinarriari buruz hausnartzea: publiko objektiboa, puntuazio-irizpideak...	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
5.4. Udalaren diru-laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertzea. <ul style="list-style-type: none"> Diru laguntzen lagin bat definitu. Kanpoko laguntza kontratu. 	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza Berdintasuna Diru-laguntzak dituzten udal sailak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Aztertutako fitxen %a. Aztertutako diru-laguntzetan, onuradunen emakumeen %a
5.5. Diru laguntzen fitxetan jasotako datuak aztertu eta gero, jasotzen diren datuak berrikustea.	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Egin diren aldatetako, guztira
5.6. Emakumeek edo emakume-elkarte nagusiek beste Departamentu batzuek bultzatutako prozesuetan parte har dezaten proposatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Parte hartzen duten emakumeen %a
5.7. Udal-kontseiluetako urteko plangintzan genero ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Martxan jarritako ekintza espezifikoak, guztira
5.8. Emakumeek Udalarari aurkeztutako eskaerak aztertzea (kexak, iradokizunak) eta dagozkien departamentuko kudeaketa-planetan sartzea. <ul style="list-style-type: none"> Belarri proiektuan, emakumeen beharrak eta eskaerak aztertzea. Beharrak eta eskaerak egitean emakumeak nora deribatzen dituzten jaso, hala badagokio. 	<ul style="list-style-type: none"> Udalinfo Lehendakaritza Partaidetza Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Identifikatutako lan-ildoak, guztira

Donostia, feminismoaren aldeko hiria

Neurriak

EKIALDEKO BARRUTIKO BERDINTASUNERAKO PLANA EGIN

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
5.9. Ekialdeko Barrutiko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa osatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Ekialdeko Barrutiko Berdintasun lantaldea Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
5.10. IV Planaren egokitzapen bat lantzea. <ul style="list-style-type: none"> Zein proiektu-emaitzetan parte hartuko duten erabakitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ekialdeko Barrutiko Berdintasun lantaldea Partaidetza Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Aukeratutako neurriak, guztira

Donostia, feminismoaren aldeko hiria

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	HELMUGA BALIOA
• Parte-hartze prozesuetan, emakume solaskideen %a	• %40-%60
• Neska eta emakume gazteek Donostiako Udalak bultzatzen dituen ekintzei buruzko gogobetetze maila	• 7
• Ekialdeko Barrutiko berdintasunerako Planaren ezarpenaren %a	• %80
• Ekialdeko Barrutiaren kudeaketan, emakumeen parte-hartzea	• %40-%60
• Donostia feminismoaren aldeko hiria ote den emakumeen pertzepzioa (inkesta)	• 7
• Donostia feminismoaren aldeko hiria ote den emakume turisten pertzepzioa (inkesta)	• 7

TXERTATUTAKO NEURRIEN ZERRENDA

- | |
|--|
| 1. Kanpainak garatzea |
| 2. Diru-laguntzen kudeaketa |
| 3. Emakumeen Etxeko eguneroko kudeaketa |
| 4. Beste Emakumeen Etxekin sare-lana |
| 5. Emakumeak eta Hiria Foroa dinamizatzea |
| 6. Donostiako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Kontseilua dinamizatzea |
| 7. Diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta kontratuetan berdintasunerako klausulak sartzea |

3

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

6. ERREPARAZIO
INTEGRALA

7. ERABATEKO
PREBENTZIOA



Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Abenduaren 28ko 1/2004 lege organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriak zehazten dituena.** I. titulua: Sentsibilizazio, prebentzio eta detekzio neurriak.
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
 - VII. kapitulua: Emakumeen aurkako indarkeria. 52. art. Prebentzioa.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.**
 - III. ardatza. 6. programa Sentsibilizazioa eta prebentzioa. 6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea; 6.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2005 Foru Araua, martxoaren 9koa.**
 - 55. artikulua: prebentzioa eta sentsibilizazioa: Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen jabekuntzarako prozesu kolektiboak indartzen laguntzea.
- **Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana. Prebentzioa eta sentsibilizazioa** helburu estrategikoa.

NORMA VAZQUEZEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANEKO INDARKERIA ILDOARI BURUZ EGINDAKO EBALUAZIOA (2019)

- Lehen prebentzioaren esparruan nerabeen artean eta bereziki gazteen artean, mutilak, orain arte bederen, beren jokabideekin eta generoko harreman asimetriko eta hierarkikoetan hartzen duten lekuarekin sortzen duten arazoak jabetzen ez direla ematen du.
- Prebentzioak jokabideen aldaketan jarri behar du fokua, ez du soilik haien alderdi negatiboak nabarmendu behar, eta praktikara eraman behar da kontzeptu esparruko ikuspegi feminista.
- Indarkeriaren esparruan hiru lan ildo estrategietako bat autodefentsa izatea planteatzen du, eta lau lan eremuetatik bat sentsibilizazioa/prebentzioa.

EGUNGO EGOERA

- Autodefentsa feminista Donostiako Emakumeen Etxean: 31 parte hartzaile (2017/2018 ekitaldian).
- Jaietan indarkeria matxistei aurrea hartzeko urteko kanpaina.

Indarkeria matxistak ez du bereizgarri nagusirik egiten eta emakume guztiei eragiten dien gaia da. Hala ere, ukaezina da emakume batzuk beste batzuk baino zaurgarritasun maila handiagoa dutela, eta prebentziorako bidean euren errealitate zehatzak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Zaurgarritasun egoera handiagoa duten emakumeak identifikatu dira, eta horien artean nerabeak, gazteak, bazterkeria egoeran daudenak, migranteak, aniztasun funtzionala dutenak, presoak eta adineko emakumeak aurki daitezke.

Proiektu-emaitza honetan, **arreta berezia jarri nahi dugu adineko emakumeengan**, izan ere, pairatzen duten indarkeriak eta azken honen ikusezintasunak zaildu egiten dute egoera horiei aurre egitea. Horrez gain, adineko emakumeek askotan zailtasun are gehiago izaten dituzte euren indarkeria kasuak identifikatu eta laguntza eskatzeko, eta honen oinarrian hainbat arrazoi daude: bakardadea eta sare-falta, erlijioaren eragina, menpekotasun ekonomikoa, emakumeak eremu pribatuarekin lotu izana, etorkizuna beste modu batera proiektatzeko zailtasunak, eta eskubide zein baliabideen inguruko informazio urria hala nola (ALMUDENA MATEOS, CRISTINA PÉREZ eta SONIA SAN ANDRÉS; 2017). Honengatik guztiatik, behar-beharrezkotzat jotzen da sentsibilizazioan eta informazioa zabaltzean eragitea indarkeria hauek guztiak saihestu eta haien aurrean esku-hartzearren.

Nerabe eta gazteen kasuan batez ere, kontuan izan behar da indarkeria ematen den espazioa ez dela soilik espazio fisikora mugatzen, espazio digitalean ere ematen baita. Espazio fisikoari dagokionez garrantzitsua litzateke arreta berezia jartzea jai giroan gertatzen den indarkeriari eta neurri espezifikoak martxan jartzea horiei erantzuteko. Hau ekiditeko, tresna oso baliagarriak dira autodefentsa feminista eta espazio digitala aintzat hartzen duten **autodefentsa feminista ikastaroak**.

Azkenik, fokua emakumeengan jartzea esku-hartzea mugatzea litzatekeelako, funtsezkoa da **gizon eta mutil gazteekin euren maskulinitatea** zalantzan jartzeko neurriei bide ematea.

Erabateko prebentzioa

Neurriak

AUTODEFENTSA FEMINISTA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
6.1. Autodefentsa feministako tailerrak zabaltzea denboran eta espazioan. <ul style="list-style-type: none"> ○ Publikoak eta esparruak definitzea eta arreta berezia jartzea emakumeen artean dagoen aniztasunean. ○ Autodefentsa feminista digitala bultzatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Antolatutako tailerrak, guztira • Parte hartu duten emakumeak, guztira
6.2. Indarkeria saihesteko <i>pack</i> bat garatzea ikastetxeentzat: autodefentsa neskentzat eta maskulinitateak mutilentzat.	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria • Hezkuntza • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Parte hartu duten ikastetxeak, guztira • Parte hartu duten neskak, guztira • Parte hartu duten mutilak, guztira
6.3. Prestatzaileen prestakuntza antolatzea, talde autonomoak sortzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Prestatzaile berriak, guztira

Erabateko prebentzioa

Neurriak

ADINEKO EMAKUMEAK

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
<p>6.4. Adineko emakumeentzako dauden programetan sentsibilizazio espazioak sortzea: informazio guneak, kafeak...</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Zaharren egoitzak. ○ Tutoretzapeko apartamentuak. ○ Osakidetzarekin batera antolatzen diren erorketen prebentziorako tailerretan, pildora bat sartu. ○ Gipuzkoako Foru Aldundiari, SENDIAN programaren barruan zerbitzuren bat proposatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Donostia Lagunkoia • Elkartek • Gizarte Ekintza 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Prebentzio-ekintzak, guztira • Parte hartu duten emakumeak, guztira

Erabateko prebentzioa

Neurriak

DETEKZIO GOIZTIARRA

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
6.5. Indarkeria arrisku egoerak identifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Jaietan eta gazte ekipamenduetan lantzea. ○ Jabekuntza-guneak sortzea. ○ Gazteentzat zalantzak argitzeko erreferentzia puntu izango den espazio digitala indartzea (Biluzik Mundura). ○ Informazioa aniztasun funtzional egoeran dauden emakumeentzat irisgarria izatea (irakurketa erraza, Braille, QR kodeak). ○ Bazterkeria egoeran dauden emakumeengan arreta jartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen Etxea • Gizarte Ekintza • Gazteria • Hezkuntza • Udaltzaingoa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Martxan jarri diren ekintzak, guztira

Erabateko prebentzioa

Lortu nahi ditugun emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	XEDE-BALIOA
• Esku hartzen den auzoen %a	%75
• Autodefentsa feminista, indarkeriaren kontrako estrategia bezala baloratzea (inkesta)	7
• Arrisku-egoerak identifikatzeko finkatutako espazioak izatea	BAI
• Indarkeria matxistak adineko emakumeei ere eragiten dielako pertzepzioa (inkesta)	7

Erreparazio integrala

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
 - VII. kapituluak: Emakumeen aurkako indarkeria. 51. art. Ikerketa
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.**
 - III. Areatza. 7. programa: Kaltea hautematea, arreta ematea eta konpontzea. 7.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduzaren ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez. eta 7.3. Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2005 Foru Araua, martxoaren 9koa.**
 - 55. artikulua. Herritarren, erakundeen eta hedabideen mobilizazioa bultzatzea, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurkako arbuio kolektiboa publikoki azaldu dezaten.
- **Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana.** Indarkeria matxistaren biktimei eskubide urratuak aitortzea, ordaina eskaintzea eta leheneratzea; Indarkeria matxistaren biktimek bizirauteko eta aurrera ateratzeko egiten duten borroka aitortzeko eta ordaina eskaintzeko ekintzak egitea; Proiektu pilotu bat garatzea indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeekin berariaz lan egiten duten elkarteekin, emakumeen ahalduzaren pertsonala eta kolektiboa hobetzearren beren autonomia pertsonala erreparatzeko eta berrezartzeko esparruan.

NORMA VAZQUEZEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANEKO INDARKERIA ILDOARI BURUZ EGINDAKO EBALUAZIOA (2019)

- Indarkeriaren esparruan hiru lan ildo estrategikoetatik bat erreparazioa izatea planteatzen du. Bi alderdi hartzen ditu: erreparatzeko esku hartzea eta erreparazio soziala. Eta sistematizazioa/ikerkuntza eta prestakuntza, bi lan eremu funtsezko.

EGUNGO EGOERA (2018)

- Emakumeen Etxeko guneak eta taldeak (2018-2019): 330 emakume norbera ahalduzarako Gunean eta 49 parte hartzaile indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Emakumeak gunean.
- Alderdi fisikoa berreskuratzeko jardura eta kirol programa.

Batzuetan, indarkeria matxistaren erreparazioa laguntza neurri sorta batera murrizten da, arazoari konponbidea ematea eta biziraun duen pertsona zegoen puntura itzultzea xede dituen. Ikuspegi horri jarraituta, **ez litzateke erreparazio eraldatzailea eta ez-errepikatzea landuko**, izan ere, Julie Guillerotek dioen bezala emakumeen kasuan, bazterketa, ezberdinkeria eta diskriminazio egoera bizi ohi dutenen kasuan, ez da egokia euren eskubideen urraketa aurreko egoerara itzultzea, itzultze horrek ez baitu esan nahi euren eskubideez gozatzeko aukera dutenik (JULIE GUILLEROT, 2009).

Beraz, garrantzitsua da abian jartzen diren ekintzak eraldatzaileak izatea eta aldi berean, biziraundako emakumeen **jabekuntza esperientziak partekatuz** parte hartze prozesuak abian jartzea. Esperientzia horiek oso anitzak izaten dira, eta agerian uzten dute esanahi ugari dituen kontzeptua dela erreparazioa, eta emakumeek berek birdefinitu behar dutela euren bizipenetatik abiatuta. Gainera, ikusten eta sentitzen denari hitzak jartzeko eta birdefinitzeko prozesu hori bera **ahalduntzeko eta kontzientziaz jabetzeko prozesu** bat da, bizi den errealitateari esanahi bat ematen zaionean aldaketarako aukerak ugaritzen baitira. Azken batean, garrantzitsua da norberaren bizipenetatik egoerei esanahiak ematea, salatzen eta beste bide batzuk proposatzeko.

Esan beharra dago malgua behar duela izan erreparazio prozesuak, emakume bakoitzaren beharrezko espezifikoak kontuan hartzeko eta bi aldeetako arteko birbanaketa eraginkor bat emateko (indarkeria jasandako eta eragindako pertsonen arteko). Banaketa horrek arlo ekonomiko eta juridikotik harago egiten du, eta kontuan hartzen ditu alderdi psikosozialak, boterea eta gorputza bera. Horregatik, erreparazioa ez da soilik esperientzia indibidual bat, taldekako prozesua da, baita sinbolikoa ere, aitortza eta erantzukizuna exijitzen dituen, aipatutako birbanaketak gizarte osoari interpelatzen baitio.

Erreparazio integrala

Neurriak

ERREPARAZIOA DEFINITZEA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
7.1. Barne hausnarketa egitea erreparazioari buruz: <ul style="list-style-type: none"> ○ Prestakuntza teknikoa. ○ Emakumeak entzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna • Gizarte Ekintza • Gazteria • Udaltzaingoa • Talde feministak • Emakumeen Etxeko taldeak. 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Lan saioak, guztira • Parte hartu duten emakumeak, guztira

Erreparazio integrala

Neurriak

ESKU-HARTZE PROZESUA BERRIKUSTEA, ERREPARAZIOAREN IKUSPEGITIK						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
7.2. Emakumeen Etxean egiten dena ikusaraztea, eredu gisa balio dezan.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Emakumeen Etxearen Elkartea 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
7.3. Indarkeria matxistaren kontrako udalaren erantzukizuna eta ekimenak erreparazio ikuspuntutik berrikustea.	<ul style="list-style-type: none"> Alkatetza Tokiko gobernu batzordea 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
7.4. Emakumeentzako harrera-baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea. <ul style="list-style-type: none"> Udal harrera-etxeetako dinamikak berrikustea, "Etxebizitza erreparatzaileak" izan daitezen. Kasu-jarraipena ematea. "Kasu-plana". Abegi Etxean eta Gauekon, segurtasun fisiko eta emozionala hobetzeko identifikatutako neurriak martxan jartzea. Abegi Etxea genero ikuspegitik moldatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Udaltzaingoa Gizarte Ekintza Etxegintza 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Baliabide berriak, guztira Baliabide egokituak, guztira Harrera-baliabideak erabili dituzten emakumeak, guztira

Erreparazio integrala

Neurriak

ERREPARAZIO SINBOLIKOA

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
7.5. Espazio publikoetan erreparazioa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Giza eskubideak Foro Emakumeak eta Hiria Udal bilkura 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Espazio publikoetan erreparaziorako esku-hartzeak, guztira
7.6. Indarkeriari aurre egin dioten emakumeak indarkeria matxistaren aurkako udal politikan eragile aktiboak izatea.	<ul style="list-style-type: none"> Giza eskubideak Udaltzaingoa Talde feministak eta emakumeen taldeak Gizarte Ekintza 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Parte hartzen duten emakumeak, guztira
7.7. Ahalduntze fisikoko programak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna Donostia Kirola 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Parte hartzen duten emakumeak, guztira
7.8. Adierazpen eta harreman publikoetarako protokoloa osatzea eta aplikatzea. <ul style="list-style-type: none"> Komunikazio-politika. Datuak, egoerak... 	<ul style="list-style-type: none"> Alkatetza Prentsa bulegoa 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
7.9. Kalean egiten diren gaitzespen adierazpenak Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin eta Mugimendu Feministarekin koordinatzea. <ul style="list-style-type: none"> Udala eta mugimendu feministaren arteko bitartekaritza eta harremana landu. 	<ul style="list-style-type: none"> Alkatetza Prentsa bulegoa Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda
7.10. Jaietan mugimenduen sozialen, elkarten, udalaren eta bestelako instituzio batzuen artean informazioa partekatzeko eta esku-hartzeak kudeatzeko krisi mahai bat sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Alkatetza Udaltzaingoa Donostia festak Gizarte Ekintza Berdintasuna Kannoko egileak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda

Erreparazio integrala

Lortu nahi ditugun emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	XEDE-BALIOA
<ul style="list-style-type: none">Emakumeek prozesu osoaren izaera erreparatzaileaz egiten duten balorazioa	<ul style="list-style-type: none">7
<ul style="list-style-type: none">Adituek eta udal langileek Ikuspegi erreparatzailearen integrazio-mailaz egindako balorazioa	<ul style="list-style-type: none">7

TXERTATUTAKO NEURRIEN ZERRENDA

1. Indarkeriaren kontrako kanpainak antolatzea
2. Esku-hartze prozesuaren etengabeko hobekuntza
3. Erakunde arteko protokoloaren jarraipena. Mahaia tekniko eta politikoa
4. Indarkeria matxistaren kontrako prestakuntza Udal Formazio Planean
5. Puntu Kritikoak
6. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak identifikatzea

4

EKONOMIAK ETA GIZARTE
ANTOLAKUNTZA
ERALDATZEA, ESKUBIDEAK
BERMATZEKO

8. KALITATEZKO
ZAINZAK ETA
ENPLEGUAK



Kalitatezko zaintzak eta enpleguak

Justifikazioa

ESPARRU JURIDIKO-PROGRAMATIKOA

- **Martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.**
 - 42. artikulua. Emakumeen enplegarritasuna hobetzeko programak.
 - III. kapitulua. 45-49. artikulua. Enpresetako berdintasun planak eta berdintasuna sustatzeko beste neurri batzuk
 - 51. artikulua. Administrazio publikoen jardute irizpideak. f) puntua. Neurri eragingarriak ezartzea, ordainsariei dagokienez, zuzenean edo zeharka, sexuan oinarrituta egindako edozein bereizkeria ezabatzeke.
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.**
- **2016ko uztailaren 21eko Instituzioen arteko Batzordearen erabakia.**
 - 6. puntua. Enpresetan eta gizarte eragile eta erakundeetan berdintasun planak indartzeko eta haien irismena handitzeko beharrezkoak diren baldintzak bermatzea.
 - 9. puntua. Lan talde bat sortzea gero eta eskaera maila handiagoa duten zaintzak eta arreta eredu posibleak aztertu ditzan eta kontuari erantzun egokia eman diezaion erantzukidetasunaren ikuspegitik, zaintza lanen aitortza soziala eta ekonomikoa sustatuz eta, bereziki, zerbitzu sektorean lan baldintzak hobetuz.
 - 10. puntua. Egungo eredu ekonomikoari eta eredu horrek pertsona ororen eskubideen erabilera bermatuko duen garapen iraunkorrean duen eraginari buruzko eztabaida publikoa sustatzea.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.** II. ardatza:
 - 3. programa. berdintasuna gizarte eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea. 3.3. Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea.
 - 4. programa. Emakumeen autonomia ekonomikoa. 4.1. Lan gehiago eta hobeak sortzea. 4.2. pobrezia feminizazioa murriztea.
 - 5. programa. Zaintza ekonomia feminista. 5.1. Zaintza bizitzaren jasagarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea.
- **Euskadin soldata arrakala murrizteko Estrategia eta Plan operatiboa.**
- **6/2019 Errege lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriena.**
 - Langileen Estatutuen aldaketa. 28. artikulua. Ordainsari berdinak bi sexuentzat.
 - 3/2007 Lege Organikoaren aldaketa. 45 eta 46. artikulua. Berdintasunerako planak enpresetan.

Interdependenteak gara, eta beste pertsonentzat egiten dugun lanari esker, eta besteek guretzat egiten dutenari esker eusten diogu bizitzari. Lan horiek, produktiboak edo erreproduktiboak izanda ere, ezinbestekoak dira bizitzari eusteko; baina aldi berean oso garrantzitsua da lan horiek guztiak eta lan horiek ematen diren esparruen arteko harremanak jasagarriak ote diren aztertzea (CRISTINA CARRASCO, 2014; Madrid Ciudad de los Cuidados Planetik hartua, 2017).

Horrexegatik, hain zuzen ere, zaintzetan jartzen du fokua proiektu-emaitza honek, zaintzen esanahiak birpentsatzeko eta ikuspegi zabalago batez ulertzeko, herritar guztiak erantzule eginez. Enpleguan ere aintzat hartu behar dira zaintzak, eta horretarako ezinbestekoa da genero ezberdinkeriei, soldata arrakalari eta emakumeek enplegu duinak edukitzeko dauzkaten zailtasun handiagoei aurre egingo dieten politikak oinarrian izatea. Emakumeen autonomia ekonomikoa kalitatezko enpleguen bidez sustatzea funtsezko elementua da pertsonen gizarte ekintza eta bizi kalitatea bermatzen duten baldintzak eskuratzeko.

EGUNGO EGOERA(2018)

- Zaintza Talde Motorra sortu da.
- Donostiako Udalaren berdintasunerako I. Plana.
- Dbusen berdintasunerako II. Plana eta Donostia Kulturaren berdintasunerako I. Plana ezarri dira.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA (2018)

- Donostiako errenta pertsonalen batez bestekoa: gizonen kasuan, 29.984 euro, eta emakumeen kasuan, 19.903 euro.
- Donostiako laneko errenta pertsonalen batez bestekoa: gizonen kasuan, 16.677 euro, eta emakumeen kasuan, 10.681 euro.

Kalitatezko zaintzak eta enpleguak

Neurriak

ZAITZEN PLANA						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
8.1. Zaintzen Talde Motorra sendotzea. <ul style="list-style-type: none"> Laguntza teknikoa eskaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasuna 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Lan saioak, guztira Zaintzen taldeak bultzatzen dituen ekintzak, guztira
8.2. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea. <ul style="list-style-type: none"> Eragile ezberdinekin hausnarketarako espazioak sortzea (udal departamentuak, hiriko eragileak). Emakume anitzen artean aliantzak sustatzea: zainduak diren emakumeen, haien senideen eta zaintzaileen artean. Zaintzak, ekofeminismoaren ikuspegitik aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> Donostia Lagunkoia Berdintasuna Emakumeen Etxea Gizarte Ekintza Kristina Enea Fundazioa Emakume etorkinen taldeak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Sortatuko espazioak, guztira Parte hartu duten eragileak, guztira Aliantzak sortzeko esperientziak, guztira

Kalitatezko zaintzak eta enpleguak

Neurriak

TALENTU EZKUTUA AZALERATU						
NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
8.3. Tituluen eta esperientzien homologazioa, CV-ak egitea eta lanaren bilaketa erraztea. <ul style="list-style-type: none"> ○ Tituluen homologazio prozesu ofizialaren inguruko informazioa eman. ○ Profesionaltasunaren ziurtagirien inguruan informatu. ○ Arrakala digitala murriztearren, norberak autonomoki eta online tramiteak errazago egiteko tailerrak antolatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sustapena • Emakumeen Etxea • Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (HHI-ak) 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Tituluak homologatzeko aholkutako emakumeak, guztira • Profesionaltasunaren ziurtagirien inguruan aholkutako emakumeak guztira • Antolatutako tailerrak, guztira • Tailerretan parte hartu duten emakumeak, guztira
8.4. Egindako ikasketen ibilbide profesionalari berriro heltzeko proiektua martxan jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Sustapena 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Proiektuen parte hartu duten emakumeak, guztira
8.5. Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Donostia Lagunkoia • Gazteria • Emakumeen Etxea • Kristina Enea Fundazioa 					<ul style="list-style-type: none"> • Hasi gabe / Abian / Eginda • Proiektuen parte hartu duten emakumeak, guztira • Azaleratu diren talentuak, guztira

Kalitatezko zaintzak eta enpleguak

Neurriak

BERDINTASUNERAKO PLANAK ETA SOLDATA ARRAKALA

NEURRIAK	NOR	KRONOGRAMA				GAUZATZE MAILAREN ADIERAZLEAK
		20	21	22	23	
8.6. Udal enpresek berdintasunerako planak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> Sustapena Donostia Kultura Dbus Donostia Turismo 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Garatutako plan berriak, guztira
8.7. Udalak eta udal enpresek soldata arrakalari ekitea <ul style="list-style-type: none"> Soldata arrakala aztertzea kategoria ezberdinak zeharkatuz. Udalan eta udal enpresetan soldata arrakala gainditzeko neurriak proposatzea, hala badagokio. 	<ul style="list-style-type: none"> Sustapena Donostia Kultura Dbus Berdintasun Planaren Barne Batzordea Donostia Turismo Sindikatuak 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Soldata arrakala aztertu duten udal enpresen %a Soldata arrakalaren batz besteko %a Proposatutako neurriak, guztira
8.8. Hiriko soldata-arrakalari diagnostikoa egitea kategoria ezberdinak zeharkatuz.	<ul style="list-style-type: none"> Udal Gobernuak Berdintasuna Sustapena 					<ul style="list-style-type: none"> Hasi gabe / Abian / Eginda Soldata arrakalaren %a

Lortu nahi diren emaitzak

EMAITZEN ADIERAZLEAK	XEDE-BALIOA
<ul style="list-style-type: none"> Zaintza Talde Motorrak zaintzen inguruan egindako lanaren balorazioa (inkesta) 	<ul style="list-style-type: none"> 7
<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzuetara hurbildu eta kalitatezko lanpostua lortzen duten emakumeen %a 	<ul style="list-style-type: none"> %50
<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzuetara hurbildu eta titulua edo ziurtagiria lortzen duten emakumeen %a 	<ul style="list-style-type: none"> %50
<ul style="list-style-type: none"> Soldata arrakala murrizteko estrategia adostea 	<ul style="list-style-type: none"> BAI
<ul style="list-style-type: none"> Berdintasunerako plan bat duten udal enpresen %a 	<ul style="list-style-type: none"> %100
<ul style="list-style-type: none"> Udal enpresen berdintasunerako planen ezarpen maila 	<ul style="list-style-type: none"> %80

TXERTATUTAKO NEURRIEN ZERRENDA

1. Etxeko Langileei aholkularitza zerbitzua ematea
2. Donostiako lagunkoia, Plus 55 koordinazioa

KOMUNIKAZIO PLANA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA ETA HAREN EZARPENA EZAGUTARAZTEKO NEURRIAK



HASIERAKO KOMUNIKAZIOA

Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako IV. Plana onartu eta gero, barne eta kanpo mailan ezagutaraziko zaie honako hauei:

- **Udal langile guztiei:**
 - Ohar berriemaile bana igorriko zaie langile guztiei, Planaren ezaugarri nagusiak laburrean azalduz eta dokumentua osorik eskuratu ahal izango duten estekaren berri emanaz.
 - Bilera berriemailea udal arlo guztietan.
- **Herritarrei:** Komunikazio Kanpaina.
- **Talde feminista eta emakumeen elkarteei:**
 - IV. Plana aurkezteko, bilera batera deituko zaie ondorengoei: Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluari, Emakumeak eta Hiria Foroari, Zaintza Talde Motorrari, Emakumeen Etxea Elkarteari, mugimendu feministari eta emakumeen elkarte guztiei.



KOMUNIKAZIOA PLANAREN INDARRALDIAREN BITARTEAN

- **Barne mailan:**
 - Lau hilean behin, informazio ohar bana igorriko zaie langile guztiei ondoko lauhilekoan berdintasunaren arloan izango diren aginduak edo hitzorduak oroitarazteko.
 - Urtero hautatuko dira udal arloek Planaren esparruan garaturiko hiru praktika on, haien berri langile guztiei emateko.
- **Kanpo mailan:**
 - Etengabe eguneratuko da Berdintasun Unitatearen weba.
 - Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluaren bileretan, IV. Planaren jarraipenari buruzko informazioa eskainiko da.
 - Urtero argitaratuko da, eta hedabideei helarazi, urte horretan Planaren arabera garaturiko neurriei buruzko informazio txostena.



IV. PLANAREN BUKAERAKO KOMUNIKAZIOA

Berdintasunerako IV. Plana guztiz garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da barne eta kanpo mailan.

EZARPENA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



URTEKO PROGRAMAZIOAK

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean zehar, urteko jardunetarako planak edo programazioak prestatuko dira, aintzat hartu beharreko helburuak, neurriak eta ekintzak zehaztu ahal izateko. Berdintasun Unitatearen eta Berdintasunerako Bitartekarien edo arloen arteko taldeen artean adostuko dira programazio horiek.

JARRAIPENA

- Berdintasunerako III. Planerako diseinatutako Lotus Notes **jarraipen-tresna informatikoa** IV. Planaren egitura zein edukietara egokituko da, eta ondoren MIDENET web tresnara egingo da trantsizioa.
- Berdintasun Unitateak eta bitartekariak osatuko dute jarraipenerako tresna, Plan honetan jaso diren neurriak garatuz eta gauzatuz joan diren bitartean.
- **Berdintasun Unitateak** koordinatuko du Berdintasunerako IV. Planaren ezarpenaren jarraipena, eta honako bitarteko hauek baliatuko ditu horretarako: jarraipenerako tresna, Planaren ebaluaziorako eta haren ezarpena bultzatzeko sei hilean behin egingo diren lan saioak, udal arloetako berdintasunerako bitartekarietara harreman etengabea, sei hilean behin bilera arloen arteko koordinazioari begira zehazturiko bi egiturekin, hau da, **Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoarekin** eta **Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politiko eta Teknikoarekin**, eta lau hilean behin bilerak **Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluarekin**.
- Urtero egingo da **Jarraipenaren Txostena**, jarraipenerako tresnaren bitartez bilduriko informazioa eta Planaren Kudeaketa, Koordinazio eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoarekin eta Berdintasunerako arloen arteko Batzorde Politiko eta Teknikoarekin eginiko bileretan bilduriko informazio kualitatiboa aztertzeke.

EBALUAZIOA

- 2024an ekingo zaio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren ebaluazioari, eta urteroko jarraipen txostenak, eraginaren adierazleak, tresnan bilduak, eta IV. Planaren kudeaketa eta koordinaziorako egituretan bilduriko informazio kualitatiboa hartuko dira kontuan horretarako.